Bergarako Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, LIZITAZIO-PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HONAKO ZERBITZU HAUEK KONTRATATZEKO: GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA, BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA FAMILIEI ETA GIZARTE-BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN HELDUEI ZUZENDUTA

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUAN KOKATZEA

2. XEDEA

3. EDUKIA

- 3.1. Zerbitzuen helburuak
- 3.2. Zerbitzuaren hartzaileak
- 3.3. Eskaini beharreko zerbitzuak
- 3.4. Koordinazioa
- 3.5. Esparru geografikoa

4. JARDUERA PROZEDURA

- 4.1. Zerbitzuaren mendekotasuna
- 4.2. Zerbitzuaren prestazioa
- 4.3. Esku-hartzearen mailak
- 4.4. Esku-hartzearen prozedura

5. LANTALDE TEKNIKOA

- 5.1. Antolamendua
- 5.2. Osaera

6. LANEKO ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

7. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

8. BALIABIDE MATERIALAK

9. BARRUKO ETA KANPOKO KOMUNIKAZIOAK ETA IRUDI KORPORATIBOA

10. HIZKUNTZAKO, BERDINTASUNEKO ETA LAN ARRISKUEN PREBENTZIOKO BALDINTZAK

10.1- Hizkuntza-irizpideak

10.1.1.- Zerbitzua emango duten langileen euskara-gaitasuna

10.1.2.- Zerbitzu-hizkuntza, erabilera herritarrekin

10.1.3.- Bergarako Udalarekiko harremanak

10.1.4.- Jarraipena

Bergarako Udala

10.2- Berdintasun-irizpideak

10.3- Lan Arriskuen Prebentzioko irizpideak

11. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

12. SEXU-DELITUEN BERARIAZKO ZIGOR-AURREKARIEN ZIURTAGIRIA

13.- ZERBITZUAREN EBALUAZIO-, JUSTIFIKAZIO- ETA KONTROL-SISTEMAK

Bergarako Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, LIZITAZIO-PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HONAKO ZERBITZU HAUEK KONTRATATZEKO: GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA, BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA FAMILIEI ETA GIZARTE-BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN HELDUEI ZUZENDUTA

1.- TESTUINGURUAN KOKATZEA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, prebenitzeko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonei eta harremanei dagozkien prestazio eta zerbitzuen bidez.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak honako hauek dira:

Pertsonen autonomia sustatzea eta mendekotasun-egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

Babesgabetasun-egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

Bazterketa-egoerei aurrea hartu eta erantzutea eta pertsonak, familiak eta taldeeak gizarteratu daitezen sustatzea.

Larrialdi-egoerek eragiten dituzten pertsonen eta familien beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa ezartzen du. Katalogo horretan jasota daude euskal administrazio publikoek eskaini behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak, eta administrazio bakoitzaren eskumenak zehazten ditu.

Gizarte Zerbitzuen euskal sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautzen duen 2015eko urriaren 6ko Dekretuak, 33. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen antolaketa zehazten du. Bigarren atalean, 1.3 puntuan, esaten du udalek eskumena izango dutela **gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua** bermatu eta emateko.

Halaber, kontuan eduki behar dira:

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.
- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrena.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa.
- 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena. Dekretu horrek eransten du tresnaren testua,

eta nahitaez erabili beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte zerbitzuek.

- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko tresna onartzen duena.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
- 2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena

Eta beste edozein xedapen, etorkizunean arau hauek aldatu edo garatuko dituztenak.

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eskaintzeko, plegu hauek xede dituzten zerbitzuen esparrua arautzen duten xedapen guztiak aplikatuko dira.

2.- XEDEA

Kontratu honen xedea da, alde batetik, **Bergara** udalerrian **gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua** garatzea, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak ikuskatuta, koordinatuta eta hark ezarritako gidalerroen arabera.

Eta bestetik, zerbitzu honen adjudikazioa arautzea:

- Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, babesgabetasun eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonei zuzenduta.
- Adingabeak zein adinez nagusiak izan.
- Esku-hartzea bakarka, familian, taldeka edota komunitate mailan egin ahal izango da.
- Beraz, esku-hartzeak etxebizitzan zein komunitate-ingurune irekian garatu ahal izango dira.

3.- EDUKIA

3.1.- Zerbitzuaren helburuak

Babesgabetasun eta bazterkeria-arrisku egoeran daudenen kasuan, zerbitzuaren helburuak dira:

- Detekzio goiztiarrerako bideak eta tresnak garatzea.
- Esku-hartze goiztiarrerako bideak, programak eta baliabideak lantzea.
- Ekintza prebentiboak, hezkuntza arlokoak eta terapeutikoak garatzea.

3.2.- Zerbitzuaren hartzaileak

- Babesgabetasun eta gizarte-bazterkeria arriskuan edo/eta indarkeria matxista jasatze egoeran dauden herriko pertsonei zuzentzea. Adingabeak zein adinez nagusiak izan.
- Bergarako komunitate barruko eragileak, profesionalak (irakasleak, osasun arloko eragileak, aisialdian lan egiten duten eragileak, eta abar).
- Gizarte Zerbitzuen Departamentuko profesionalak.

3.3.- Eskaini beharreko zerbitzuak

Zerbitzu honen bitartez eskaini beharko diren lehentasunezko programa edo jarduerak honako hauek izango dira:

A) <u>Babesgabetasun eta bazterkeria kasuen detekzio goiztiarrerako bideak eta tresnak garatzea:</u>

- Gizarte-eragileek babesgabetasun eta gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeren inguruko detekzio goiztiarra egiteko, gai horiei buruzko informazio, sentsibilizazio, formazio, aholkularitza eta identifikaziorako tresnak garatzea.

B) <u>Babesgabetasun eta bazterkeria kasuen esku-hartze goiztiarrerako bideak, programak eta baliabideak lantzea:</u>

- Gizarte-eragileei aipatutako egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko aholkularitza ematea.
- Gizarte Zerbitzuen Departamentuko profesionalei laguntza teknikoa ematea. Gainbegiratze teknikoa egingo da, bai kasuena, bai beste erakunde batzuekiko koordinazioarena.
- Prestakuntza espezifikoari dagokionez, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lantaldeak egoki irizten dionean, enpresa adjudikaziodunari eskatuko zaio prestakuntza egiteko eta partekatzeko.
- Udal/komunitate zerbitzu guztiei aholkularitza teknikoa eta orientazioa ematea, beharraren arabera.

C) <u>Babesgabetasun eta bazterkeriako arrisku-egoeran dauden kasuekin ekintza prebentiboak, hezkuntza arlokoak eta terapeutikoak garatzea</u>

- Kasuak eta egoerak zehaztea eta baloratzea.
- Esku-hartze plana zehaztea.
- Egoeraren kontzientzia hartzen laguntzea.
- Egoera hobetzeko beharrezkoak diren aldaketak zehaztea.
- Oinarrizko beharrak ezagutzea, ohitura osasungarriak bultzatzea, eta garapen pertsonala bideratzea, norberaren gaitasunak edota ingurukoak landuz.
- Gune seguruak bultzatzea, ardurak eta erantzukizunak landzea, eredu positiboak bultzatzea.

- Erresilientzia lantzea.
- Egokiak ez diren ohiturak, jokaerak, jokamoldeak, sentimenduak eta jarrerak gutxitzea, eta egokiagoak diren beste batzuengatik ordezkatzea.
- Familian, komunitatean eta gizartean elkarbizitza egokia eta autonomia garatzeko, jarrerak, trebetasunak, ezagutzak, jarraibide eta abileziak lantzea.
- Aurrez aipatutako ekintza guztiak garatzerako orduan, berdintasun-ikuspuntua eta intersekzionalitatea bermatzea
- Indarkeria matxista kasuetan, emakumeen ahalduntzearen ikuspuntua bermatzea

3.4.- Koordinazioa:

- Gizarte zerbitzuetako profesionalekin.
- Kasuak edota egoerak eskatzen dituen eragile guztiekin (kale-hezitzaileak, kirol, berdintasun, kultura, osasun, hezkuntza eta beste hainbat arlotako eragileak).

3.5.- Esparru geografikoa

Jardueraren esparru geografikoa Bergara udalerria da, inguruko hiriguneak ere kontuan hartuta (Angiozar, Osintxu, Ubera…).

4.- JARDUTEKO PROZEDURA

4.1 Zerbitzuaren mendekotasuna

Kontratatutako zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren menpe egongo da, eta garatu behar diren prestazioak koordinatzea eta gainbegiratzea dagokio saileko departamentuko arduradun teknikoari.

4.2. Zerbitzuaren prestazioa

Adjudikazio-hartzaileak zerbitzua eskaintzeko gune bat jarri beharko du.

Pertsonei arreta eskainiko zaie enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua eskaintzeko jarritako gunean, udal egoitzetan, etxebizitzetan, inguru irekian, komunitatean edo esku-hartzea dagokion pertsonak parte hartzen duen testuinguruetan.

4.3. Esku-hartzearen mailak

Zerbitzuak bakarkako, familiako eta taldeko esku-hartzeak egin behar ditu, eta esparru familiarrean edo komunitarioan garatu ahal izango dira.

4.4. Esku-hartzearen prozedura

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzuan integratutako prestazio guztiak garatuko ditu.

Bergarako Udala

Gizarte Zerbitzuen Departamentuko langileek bideratzen dituzten pertsona guztiak artatuko ditu, eta bere gain hartuko ditu gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean planteatu den esku-hartzearen helburuak. Honi buruz eskatzen zaizkion balorazioak eta txostenak ere egin beharko ditu.

Jarraitu beharreko jarduera-protokoloa Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sisteman esku hartzeko oinarrizko prozeduran oinarritzen da. 12/2008 Legean (abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) eta 185/2015 Dekretuan (urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) ezarrita dago prozedura hori.

- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako profesionalena da beharra jaso eta balorazioa egiteko ardura. Hala ere, enpresa adjudikazio-hartzaileak eginkizun horiek bere gain hartu beharko ditu, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako lan-kargak edo kasuen urgentziak hala eskatzen duenean.
- Balorazioa egiten duenak Arreta Pertsonalizaturako Plana egingo du, esku-hartze arloak eta helburuak eta behar duen programa/zerbitzuak finkatuz.
- Kontratatutako lantaldeko profesionalek adostutako esku-hartze plana zehaztu eta aurrera eramango dute.
- Lantaldeko profesionalei eta kasua dagokion Gizarte Zerbitzuetako profesionalari dagokie esku-hartzearen eta adostutako helburuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Prozesu guztian, kontuan izango dira alderdi hauek:

- Egin behar den esku-hartze zuzena. Esku-hartzearen xede den pertsonak parte hartu eta ados egon beharko du Arreta Pertsonalaren Planaren diseinuarekin eta markatutako helburuekin (profesional ezberdinen koordinazio-, laguntza- eta aurkezpen-bileretan parte hartuz...).
- Esku-hartzeen deribazio, jarraipen eta amaierako txostenak egitea, babesgabetasun- eta bazterkeria-egoeren balorazio-txostenak egitea.
- Kasuetan esku hartzen duten eta kasuak gainbegiratzen dituzten profesional desberdinen arteko koordinazioa.
- Esku-hartze komunitarioa eta taldekoa.
- Genero- eta ahalduntze-ikuspegia.

5.- LANTALDE TEKNIKOA

5.1.- Antolamendua

Zerbitzuaren adjudikazio-hartzaileak, plegu honetan aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta modurik onenean eman ahal izateko, antolamendu-mailako egitura aurreikusi beharko du, erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea izango da helburu nagusia, eta horren emaitzak agerikoak izan beharko dira.

Plegu honetan zehaztutako zerbitzu bakoitzak beharrezko langile, azpiegitura eta ekipamendu kopurua izango du, era horretan, araudi aplikagarrian xedatutako gutxienekoak betez, zerbitzuak bermatzeko.

Koordinatzaile bat egongo da, lantaldea eta zerbitzuak kudeatzeko.

Lantaldeak beharrezkoa duen prestakuntza izango du, bete behar diren zerbitzuak eta eginkizunak modu egokian gauzatzeko.

Lantaldearen antolaketa aurkeztu beharko du eskaintzan, langile bakoitzaren eginkizunak zehaztuz, zuzeneko arretari zein zeharkakoari dagokionez.

Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak izango du kontratatutako zerbitzuen jarraipena eta kontrola egiteko ardura: horretarako, zehaztutako mekanismoak erabiliko dituzte, eta jarduerak etengabe ikuskatu.

5.2. Osaera

Enpresa adjudikazio-hartzaileak beharrezko diren giza baliabideak izan beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzeko, langile horiek sortutako kostu guztiak bere gain hartuz, eta inondik inora ez dute Udalarekin lotura administratiborik izango. Udalak ez du enpresaren eta haren langileen arteko harremanen ondoriozko inolako erantzukizunik izango.

Lantalde adjudikazio-hartzaileak behar diren giza baliabideak ziurtatu beharko ditu, Bergarako Udalari eskaintzen dion zerbitzuaren arreta zuzena eta zeharkakoa emateko eta jarraipen egokia egiteko.

Honela osatuta egongo da zerbitzua garatzeko zuzenean lan egingo duen lantaldea:

- 2 hezitzailez osatuta egongo da, eta sexuaren araberako ordezkaritza orekatua bermatuko da.
    - Profesionalek giza eta gizarte zientzien arloko **titulazioa** izan beharko dute (gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia, psikopedagogia, pedagogia…).
    - Babesgabetasun eta bazterketako arrisku-egoeran dauden pertsonekin egindako esku-hartzeetan **gutxienez urtebeteko esperientzia** egiaztatua.
    - Euskara-maila: C1 (Europako Erreferentzia Markoaren araberakoa).
    - Urtean eskaini beharreko orduak bi langileren lanaldi osoari dagozkionak izango dira, esku-hartze sozialari buruzko Gipuzkoako hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

- Psikologo - psikoterapeuta bat:
    - Psikologian lizentziatua edo graduatua izatea.
    - Euskara-maila: C1 (Europako Erreferentzia Markoaren araberakoa).
    - Familia Terapian formazioa izango du.
    - Familia arloko esku-hartzean gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatua.
    - Urtean eskaini beharreko ordu-kopurua lanaldi osoari dagokion ordu-kopurua izango da, esku-hartze sozialari buruzko Gipuzkoako hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, dituen giza baliabideen bitartez, honako hau bermatuko du:

- Lantaldeko arduradun bat, esku-hartzean ari diren lantaldeko kideei aholkularitza eta orientazio eman eta gainbegiraketa egingo diena (hezitzaileak, psikologoa, gizarte zerbitzuetako profesionalak eta beste edozein profesional).
- Figura hori enpresakoa izango da, baina ez da Bergarako lantaldekoa izango.
- Figura honek goi-mailako ikasketak eduki beharko ditu, eta esperientzia egiaztatua, gutxienez hiru urtekoa, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean lantaldeak gainbegiratu eta koordinatzen.
- Lan horietarako, hilean 20 orduko lana izango du arduradunak.

Proposamen teknikoa aurkeztuko da, eta hor zehaztuko dira esleipendun zerbitzuko profesional bakoitzari dagozkion eginkizunak eta ordutegia.

6.- LANEKO ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Pertsonari arreta goiz eta/edo arratsaldeko ordutegian eskainiko zaio, pertsonaren edo familiaren ezaugarrien eta esku-hartzearen arloaren eta helburuen arabera.

Prestazioen ordutegia egin beharreko esku-hartzeen araberakoa izango da.

Ordutegia malgua izango da, dauden beharren araberakoa.

Salbuespen modura, zerbitzua larunbatetan eskainiko da, egoeraren behar bereziei erantzuna emateko.

Urtarriletik abendura eskainiko da gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua. Urteko egutegia erakundearekin adostuko dute, eta gutxieneko presentzia bat izango dute zerbitzuan urte osoan zehar, abuztua barne.

7.- LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Enpresak lantaldea osatzen duten langileei zuzendutako urteko Prestakuntza Plana aurkeztu beharko du.

Modu positiboan baloratuko da prestakuntza-plan horretan langileei genero-berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren prebentzioarekin edota detekzioarekin lotutako formakuntzak eskaintzea (aurrez gaiarekin lotutako prestakuntza zehatzik ez badute).

8.- BALIABIDE MATERIALAK

Bergarako Udalak proiektu honetako ekintza batzuk aurrera eramateko 6.000 euroko aurrekontu bat izango du urtero (Diru horren erabilera zuritu egin beharko du enpresa adjudikazio-hartzaileak Udalaren aurrean). Aurrekontu hori ekintzek gizonen eta emakumeen artean eragin orekatua izan dezaten bermatzeko moduan banatuko da.

Adjudikazio-hartzaileak zerbitzuari honakoa atxiki beharko dio:

- Enpresa adjudikazio-hartzaileak jarriko du zerbitzua eskaintzeko gune egoki bat.

- Zerbitzua garatzeko guneak zerbitzua eskaintzeko behar dituen oinarrizko altzariak, telefonoa, ordenagailuak eta materialak eduki beharko ditu.
- Gune horrek gutxieneko banaketa eta azalera hau eduki beharko du:
    - Lanerako bulegoak.
    - Banakako elkarrizketak egiteko bulego bat.
    - Taldeko ekintzak burutzeko espazioa.
    - 90 m^2-ko gutxieneko azalera.
    - Guneak pertsona guztien irisgarritasuna bermatuko du.
- Kokapena: Gunea Bergarako erdigunean (udaletxetik arrasto zuzen bat finkatuta kilometro batera) egon **beharko da, herritarrak oinez joan ahal izan daitezen, eta irisgarritasun-irizpideak bermatu beharko ditu (atxikita doa distantzia zehazten duen planoa).**
- Gizarte- eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko beharrezko material didaktikoa, pedagogikoa, juridikoa...
- Zerbitzua behar bezala ematea bermatuko duten ekipo eta programa informatikoak.
- Zerbitzura zuzenean edo zeharka lotuta dauden profesional guztien eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuko langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta jarraipenerako baliabide teknikoak (langileentzat mugikorrak, posta elektronikoa…).
- Zerbitzuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak bere gain hartu beharko ditu erabiltzaileei arreta egokia emateko beharrezko beste edozein material eta zerbitzuren gastuak, profesionalaren garraio-gastuak barne, baldin eta beharrezkoa balitz herritik kanpora egin beharreko akonpainamendua.

9.- BARRUKO ETA KANPOKO KOMUNIKAZIOAK ETA IRUDI KORPORATIBOA.

Oro har, plegu honen xede eta helburu diren jarduerei aipamena egiten dieten jakinarazpenetan, Bergarako Udala - Gizarte Zerbitzuen Departamentua izena agertu beharko da.

Horrez gain, zerbitzuaren identifikazio- edo seinaleztapen-elementu guztietan, paper-gauzetan, txostenetan eta irudia eraman dezaketen gainerako euskarrietan, Bergarako Udalak - Gizarte Zerbitzuen Departamentuak definitutako irudi identifikagarria islatuko da.

10.- HIZKUNTZA, BERDINTASUN ETA LAN ARRISKUEN PREBENTZIOKO BALDINTZAK

10.1- Hizkuntza-irizpideak

Bergarako Udalak indarrean dauka euskararen erabilera bultzatzeko plana. Bestalde, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, 18. Artikuluan, administrazioetako normalizazio-planek

jaso behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta, horien artean, ondorengoa agertzen da:

> *"18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen."*

Horiek guztiak erreferentziatzat hartuta, kontratazio honetan ondorengo irizpideak kontuan hartu beharko dira euskarari dagokionez:

10.1.1.- Zerbitzua emango duten langileen euskara-gaitasuna

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, enpresa adjudikazio-hartzaileko langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte euskarazko gaitasunei dagokienez. Hori dela-eta, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, jardueran parte hartuko duten hezitzaile eta psikologoak C1 gaitasun-maila (Europako Erreferentzia Markoaren araberakoa) egiaztatu beharko dute euskarari dagokionez.

Behin-behineko adjudikazioa egin eta 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu egin beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza-gaitasuna.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza-gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea, edo
- Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

Era berean, enpresa kontratatu ondoren zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere euskara-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

10.1.2.- Zerbitzu-hizkuntza, erabilera herritarrekin

Kontratuaren xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta (bereziki adin txikikoekin eta gazteekin lan egingo denez), ohiko zerbitzu-hizkuntza euskara izango da, ahal den guztietan. Betiere, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

Adibidez, herritarrekiko ahozko harremanetan (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskararen erabilera bultzatuko da. Eta era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak ere (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak…) euskaraz egingo dira hartzaileak euskara ulertzen duen guztietan eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez.

10.1.3.- Bergarako Udalarekiko harremanak

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalaren hizkuntza-araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta, beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira, bai bilerak, txostenak, fakturak eta abar.

10.1.4.- Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena: Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuek egingo dute finkatutako hizkuntza-baldintzak betetzen diren egiaztatzeko jarraipena,

gainerako baldintzen jarraipena egiten duten modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango diote Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du, oniritzia emanez edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

10.2- Berdintasun irizpideak

Oro har, komunikaziorako erabiltzen diren materialetan, honako baldintzak bete beharko ditu: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea, eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol-aniztasuna eta genero-identitateak jasoko dituen irudia sustatzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean ezarritako printzipioari jarraituz).

Kontratistak generoaren ikuspegia kontuan izan beharko du kontratua egikaritzean sortzen diren txosten, idatzi, datu-bilketa, estatistika eta abarretan. Urteko txostenak jaso egin beharko du kontratazioak generoan izandako eragina. Sexuen arabera banatutako datu eta adierazleak erabiliko dira, aplikatutako berdintasun-neurrien eragina ebaluatu ahal izateko.

Horrez gain, ez da zerbitzuaren baitan inongo jarrera matxistarik onartuko.

10.3- Lan arriskuen prebentzioko irizpideak

Enpresa adjudikazio-hartzaileak bete egin behar ditu Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeari jarraiki, prebentzioaren arloko betetze agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Kontratua sinatu eta zerbitzua ematen hasi aurretik:
   I. Enpresaren dokumentuak:
      - Bergarako Udalarentzat lan egingo duten langileen zerrenda (NAN, izen-abizenak eta kalifikazio profesionala).
   II. Langileen dokumentuak:
      - Langileen prestakuntza- eta informazio-ziurtagiriak (Bere lanpostuari buruz, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 18. eta 19. artikuluak).
      - Esku hartzen duten langileen gaitasun medikoaren ziurtagiria.

b) Jarduera hasi ondoren eta gauzatzen den bitartean, honako betebeharrak izango ditu adjudikazio-hartzaileak:
   - Udal langileekin lankidetzan aritzea prebentzio-lanetan eta, bereziki, larrialdietan.
   - Prebentzio-arloan garrantzitsua den edozein aldaketa jakinaraztea jardueran zehar.
   - Bergarako Udalari jakinaraztea kontratatutako zerbitzua gauzatzean izandako lan istripuak edota konkurrenteen ondorioz gertatzen badira.
   - Legez arriskutsutzat jotzen diren jardueren kasuan, segurtasun-arauak eta laneko jarraibideak jakinaraztea.

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

Udalak aukera izango du, kontratuaren exekuzioan edozein unetan, adjudikazio-hartzaileari arestian aipatutako egiaztagiriak eskatzeko.

Adjudikazio-hartzaileak dokumentazioa aurkezteko 10 egun balioduneko epea izango du –eskaera jaso eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita–.

11.- INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratazioak esleipendunari datu pertsonaletara sartzeko modua ematen dionez, eta horien tratamenduaren erantzulea erakunde kontratatzailea denez, esleipenduna izango da datu horien tratamenduaren **eragilea**. Hala, eragile-kontratua izenpetu beharko du Bergarako Udalarekin, 3/2018 Lege Organikoak jasotzen duen bezala (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

12.- SEXU-DELITUEN BERARIAZKO ZIGOR-AURREKARIEN ZIURTAGIRIA

Umeak babesteko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzaren urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatzen duen Adingabekoaren babes juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa betez, sexu-delituen berariazko zigor-aurrekarien ziurtagiriak aurkeztu behar dira, haien eginkizunak betetzeko adingabekoekin lan egiten duten zerbitzuetako langile guztiei buruzkoak.

13.- ZERBITZUAREN EBALUAZIO, JUSTIFIKAZIO ETA KONTROL SISTEMAK

Zerbitzuaren ebaluazioa egiteko maiztasun zehatzik ez da finkatzen, baina inoiz ez dira hilean behin baino gehiagokoak eta urtean behin baino gutxiagokoak izango.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzuaren ebaluazio-, justifikazio- eta kontrol-proposamena egingo du aurkeztu beharko duen txosten teknikoan.

Behin proposamena balioetsi ondoren, enpresa adjudikazio-hartzailearekin adostuko da aurkeztu beharreko dokumentazioa, garatuko diren ebaluazio-mailen arabera:

- Kontratuaren garapen orokorraren ebaluazioa
- Zerbitzuaren metodologiaren eta antolakuntzaren ebaluazioa
- Landutako kasuen eraginkortasunaren ebaluazioa
- Orduen banaketa
- Kasu bakoitzari eskainitako orduak
- Kasu bakoitzarekin egindako koordinazio-orduak
- Eragileekin egindako orduak
- Gizarte Zerbitzuekin egindako orduak
- Txosten-kopurua
- Deribazioak

Bergarako Udala

- Aldatu/hobetu beharreko arloen proposamenak
- Etab.

Xabier Legorburu Igartua

Gizarte Zerbitzuetako Arduraduna

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Esku-hartze soziohezitzailea eta psikosozialerako zerbitzua gauzatzeko Baldintza Teknikoen Agiri hau 2025eko martxoaren 24ko dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

IDAZKARIA

Bergarako Udala

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LICITACIÓN, DEL SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y PSICOSOCIAL DIRIGIDO A MENORES Y FAMILIAS EN SITUACIÓN DE DESPROTECCIÓN Y A PERSONAS ADULTAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN SOCIAL

ÍNDICE

1. CONTEXTUALIZACIÓN

2. OBJETO

3. CONTENIDO

- 3.1. Objetivos del servicio
- 3.2. Población destinataria del servicio
- 3.3. Servicios a prestar
- 3.4. Coordinación
- 3.5. Ámbito geográfico

4. PROCEDIMIENTO DE ACTUACIÓN

- 4.1. Dependencia del servicio
- 4.2. Prestación del servicio
- 4.3. Niveles de intervención
- 4.4. Procedimiento de intervención

5. EQUIPO TÉCNICO

- 5.1. Organización
- 5.2. Composición

6. HORARIO Y CALENDARIO LABORAL

7. FORMACIÓN DEL PERSONAL

8. RECURSOS MATERIALES

9. COMUNICACIÓN INTERNA Y EXTERNA, E IMAGEN CORPORATIVA

10. REQUISITOS LINGÜÍSTICOS, DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y DE IGUALDAD

10.1- Criterios lingüísticos

10.1.1.- Capacitación en euskera del personal que vaya a prestar el servicio

10.1.2.- Lengua de servicio, su uso con la ciudadanía

10.1.3.- Relaciones con el Ayuntamiento de Bergara

10.1.4.- Seguimiento

10.2- Criterios de igualdad

10.3- Criterios de Prevención de Riesgos Laborales

11. CONFIDENCIALIDAD DE LA INFORMACIÓN

12. CERTIFICADO DE ANTECEDENTES PENALES ESPECÍFICO SOBRE DELITOS SEXUALES

13.- SISTEMA DE EVALUACIÓN, JUSTIFICACIÓN Y CONTROL DEL SERVICIO

Bergarako Udala

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LICITACIÓN, DEL SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y PSICOSOCIAL DIRIGIDO A MENORES Y FAMILIAS EN SITUACIÓN DE DESPROTECCIÓN Y A PERSONAS ADULTAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN SOCIAL

1.- CONTEXTUALIZACIÓN

El Sistema Vasco de Servicios Sociales constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública, cuya finalidad es favorecer la integración social, la autonomía y el bienestar social de todas las personas, familias y grupos, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional.

Los objetivos del Sistema Vasco de Servicios Sociales son los siguientes:

Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia.

Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección.

Prevenir y atender situaciones de exclusión y promover la integración social de personas, familias y grupos.

Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por situaciones de emergencia.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, establece en su artículo 22 el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, identificando las prestaciones económicas y los servicios que han de ofrecer las administraciones públicas vascas, determinando así mismo las competencias de cada administración.

